

«Legionariak oso misio arriskutsua dute beren aurrean» dio Vargasek

Atzo abiatu ziren Bosniarantz azken 550 soldadu espainiarrak

Atzo abiatu ziren Split-eko (Kroazia) porturantz Sarajevora laguntza humanitarioa iristeaz arduratuko diren azken soldadu espainiarrak. Julian Garcia Vargas Defentsa ministro espainiarrak soldaduak agurtzean gogoratu zuenez, legionariak «oso misio zaila eta arriskutsuari» egin beharko diote aurre.

ALMERIA

Azken 558 soldadu espainiarrak —lehen 195ak urriaren 22an abiatu ziren Bosniara— goiz partean atera ziren Almeriako portutik 'Castilla' gerrauntzian eta igandean Spliten izango direla espero dute. Beren operazioak hortik astebetera hasi beharko luke teoriar, baina gerra gogortzen bada atzeratu egin daiteke.

Hasiera batean sei hilabeterako egongo dira militar espainiarrak Bosnian, baina tarte horretan bakea lortzen ez bada eta Sarajevoko biztanleen egoera okertu egiten bada, egonaldia luza daitekeela adierazi dute Defentsa Ministerioak iturriek. Soldadu gehiago bidaltzeko aukera ez du baztertu Garcia Vargas ministroak.



Senide eta adiskideen malkoen artean abiatu ziren legionariak Spliterantz.

EFE

MOSTARRETIK SARAJEVORAKO BIDEA

Atzo agurtutako soldadu espainiarrek UNPROFOR izenean Bosnia-Herzegovinara iritsiko diren hainbat herrialdeetako militarrei egokitu zekiekeen misiorik zailena bete beharko dute: Mostar eta Sarajevo arteko bidean zehar laguntza humanitarioaz kargatutako konboiak babestea. Guztira 700 kilometroko ibilbidea egin beharko dute soldadu espainiarrek babestuko dituzten konboiek, baina Split eta Mostarren artean ez da arazo handirik espe-

ro, Kroaziako Armadak eta Bosnia-Herzegovinako kroaziarren armadaren (VHO) menpean baitaude lur horiek. Arazorik handiena Mostar eta Kisejak arteko errepide estuan zehar aurrera egitea izango da. Bide hori serbiarren menpe dago gehienbat eta nahi izanez gero, ez lukete arazo handirik izango bere armen bitartez konboiak pasatzea eragozteko.

Neretva ibaiaren ertzetik doan bide estuko zubi gehienak guztiz txikiturik daude. Zapadore eta ingeniarien lana behin-

behineko zubiak egokitzea izango da. Horretaz gain, serbiar, kroaziar eta musulman beraiek jarritako kontrolak igaro beharko dituzte.

Lehenik eta behin ordea, espainiarren bigarren kanpamendua non jarri behar den erabaki behar da, kroaziarrek eragozpenak jarri baitituzte hasiera batean pentsatutako Jablanica herrikoa muntatzeko. Jablanica espainiar legionariak babestu behar duten bidearen ondoan dago eta eraso gogorak ari da jasaten azken asteotan.

Ekologia Belaunaldia eta Berdeek bat egingo dute datozen hauteskundeetan

A. SOKARROS / BAIONA

Ekologia Belaunaldia eta Berdeak bi frantses alderdi ekologistek hautagai berberak aukeratuko dituzte datorren urteko martxoan izango diren Legebiltzarrerako hauteskundeetan. Gainerat, herenegun Parisen izenpetutako hitzarmenak zehazten duenez, hautagai ekologistak ahalzeara izango den aldi oroz, bigarren itzulian azalduko dira.

Joan den asteartean, bi alderdi ekologistetako zuzendaritzaren artean lortutako akordioa onetsi beharko dute, hala ere, bata zein bestearen biltzar nagusiek eta hauek datorren azaroaren 14 eta 15ean egingo dira. Alabaina, bi egun horietan ez litzateke ezuste handirik gertatu behar, Berdeak eta Ekologia Belaunaldiko kideak «batasun ekologista indartsua» osatzeko premian bat datozelako.

Asmo hori bera azaltzen da herenegun onartutako hitzarmen-

naren lehen artikulutik zeren bertan adierazita baita: «Bi mugimenduek elgar adituta, hautagai ekologista bakarra aurkeztea erabaki dute, hurrengo Legebiltzarrerako hauteskundeetan eta hauteskunde eremu guztietan. Honen gauzatzeko, Ekologia Belaunaldia eta Berdeen departamendu guztietako egiturei elkarrekin eskatzen zaie, hauteskunde eremuetako banaketa gauzatzeko moduan».

Hurrengo martxoan egingo diren Frantziako Legebiltzarrerako hauteskundeetan lehen itzulian bi alderdi ekologista hauen baterekin prozesua joan zen ekainean hasi zen baina inor gutxik pentsa zezakeen bide onez bururaino iritsiko zirela. Gainerat, herenegun hitzarmena ez da lehen itzulian baterekin horretan mugatzen, ekologistak bigarren txandean geratzeko asmo argitan baitabilta. Izan ere, akordioaren 12. artikuluan errana denez, «bi mugimenduek beren politika auto-

nomia nahikundearen arabera, jarrera bateratua izango dute, hau da, baldintzak izango diren aldi oroz hautagaiak bigarren itzulian geratzeko eta horrela ezin izanez (botoemaile kopuruaren % 12,5 ez bada lortu) boto aholkurik ez ematea».

SOZIALISTENTZAT ONDORIO TAMALGARRIAK


Antoine Waechter (Berdeak) eta Brice Lalondek (Ekologia Belaunaldia) zuzendutako alderdien arteko hitzarmena zinez gauzatuz gero, arrisku handienak dauzkana frantses alderdi sozialista da. Izan ere, aurtengo hauteskunde erregionaletako emaitzak erreferentzia gisa hartuta —hauetan bi alderdi ekologisten artean % 12 lortua izan zen—, batasun ekologiko berri honek botoen % 17 inguru bereganatu dezake eta hala gertatuz gero, 30 eta 40 diputaturen artekoa lortzeko aukera lukete.

Antzeko emaitzekin PSko



Brice Lalonde.

hautagaien aurretik pasa ditezke hainbat tokitan eta honek alderdi sozialistaren porrot egitea eragotzi dezake. Hain zuzen, Ekologia Belaunaldia eta Berdeen arteko bat etortze honen ondorioak, atzo arratsean bildu zen PSko bulego erabakitzailearen aipagai nagusietatik izan zen. Laurent Fabius sozialista buruzagi nagusiarentzat une neketsua egon zela zalantzarik ez dago, PS eta ekologisten artean hurbiltzeak gauzatzea bere politikabidearen ardatz nagusietatik bat zegoelako.



Ramon Rubial.

Auzitegi Gorenaren aurrean laguntzea eskatu dio PSOEk Pons eta Labordari

MADRIL

Marino Barbero Filesa auzia ikertzen duen epaileak eskatutako agiririk emango ez duela adierazi zuten atzo PSOEko hainbat burukidek. Gainera, alderdi sozialistak laguntza eskatu die Felix Pons eta Juan Jose Laborda Diputatuen Kongresu eta Senatuko lehendakariari —biak PSOEko kideak— agiri horiek zabaldu behar ez ditzan. Oposizioaren kritikak berehalakoak eta bortitzak izan dira oso.

Atzo goizean jakin ahal izan zenez, herenegun PSOEk gutun bana bidali zien Laborda eta Ponsi Marino Barbero epailearen eskakizuna atzera bota zedin. Barberok bi motatako agiriak eskatu dizkie sozialistei: auzian inplikaturik dauden Carlos Navarro diputatua eta Josep Maria Sala senadoreek zein kargu betetzen duten erakusten duena eta bestetik, azken urteotan alderdiak egin dituen kontabilitate liburuak.

Ramon Rubial PSOEko lehendakariak —kargu sinbolikoa du— sinatutako gutunaren esan zenez, bi agiri mota horiek bidaltzea «gure eskubideak bortxatzen ditu» eta. Gutunaren arabera eta geroago Jose Maria Benegas sozialisten antolakuntza idazkariak berretsi zuen moduan, «PSOEk ez ditu zertan kontabilitate liburu horiek izan behar, ez delako merkatal elkarte baizik eta alderdi politikoa». Alderdien fiskabilitatea kontrolatzea Kontu Auzitegiren eskumena dela gogoratu zuten sozialistek eta erakunde honek dituela 1987 eta 1991. urteen arteko kontuen liburu guztiak.

«PSOE-K LOTSA GALDU DU»

Benegasek esan zuenez, «PSOEK ez dio justiziari ihes egin nahi», baina eskatutako agiriak «ezin dizkiogu epaileari eman» gaineratu zuen. Felix Pons Kongresuko lehendakariak bat egin zuen PSOEko hirugarren buruaren iritziarekin eta berak Auzitegi Gorenaren ikerketak eragozteko ahalmenik ez duela gogoratu zuen.